

SELEKZIOA. Gaur bertan Internet bidez zabalduko duten adierazpenaren aldeko atxikimenduak lortu nahi dituzte

Itsasoaz bestaldeko bultzada

Ameriketan bizi diren hainbat euskal herritarrek, euskal selekzioaren parte-hartzea eskatzeko, kanpaina bat jarri dute abian

Enekoitz Telleria | **DONOSTIA**

Euskal Diaspora elkartearen web orrian (<http://euskalherria.cjb.net>) aritzen diren lagun zibernetikoen ekimenez jarri da abian Iruñeko Mundialean euskal selekzioaren parte-hartzea eskatzeko kanpaina. Nazioarteko Federazioaren ezezkoaren berri jakin eta lehen harreman eta idatzien ostean, adierazpen bat hitzartu dute, eta gaur bertan zabalduko dute, Internet bidez, mundu osoko erakunde, komunikabide, kantzileria, euskal etxe eta euskal herritarren artean. «Zenbat eta jende gehiago alde irten, hobeto. Atxikimendu horiek guztiak Euskal Herrira bidaliko ditugu, hori ikusteko hemen jendea horren alde zelan dagoen. 'Ea orain zuek zer egiten duzuen', esanez», azaldu dio EGUNKARIARI Javier Egiak, ekimenaren suta-tzaileetako batek.

Markinarra da Egia jaiotzez, pilotari familia bateko kidea (aita, puntista ohia, World Jai Alai-ko arduraduna Markinan eta anaia Tijuana profesional izandakoa). Mexikoko frontoian pilota egile lanetan aritua da, Cancunen ere bai, eta azken hiri horretan bizi da egun. «Une hau aprobetxatu behar da denon artean zerbait egiteko eta ez azken unea arte zain egon, korrika eta presaka ibiltzeko. Hau prozesu baten modukoa izan behar da. Aurten Euskadiko Federazioa onartzen bada Euskal Herrikoa beharrean, primeran. Baina hortik aurrera egin behar da gero», hausnartu du Egiak. Zesta-punta mundua

Euskadiko pilota selekzioko kideak, Caracasko euskal etxean, Simon Bolivar Kopa jokatu zutenean.



ESANAK

JAVIER EGIA
(Mexiko)

«Une hau aprobetxatu behar da denok batera zerbait egiteko; ez azken unea arte zain egon»

DANIEL C. BILBAO
(Argentina)

«Bertako pilotariak ere eskutitz bat bidali diote Argentinako Federazioari gure eskariekin»

LUIS ALBERTO TRINCADO
(Venezuela)

«Hemen adostasun handia dago. Ez dago egun Euskal Herrian dagoen zatiketa hori»

ongi ezagutzen duenez, IJAPA sindikatuko kideekin ere jarri da harremanetan Egia. «500 pilotari baino gehiago dira. Gure deklarazioa bidaliko diegu eta garrantzitsua litzateke haien atxikimendua», onartu du.

Daniel C. Bilbao Argentinan ari da euren ekimenarentzat atxikimenduak lortu nahian. Mungiatik Argentinara joanda-

koa du sendia, Arrecife (1921), Pergamino (1951) eta Rio Cuarto (1996) euskal etxeen sorreran parte-hartze esanguratsua izan dute haren ahaideek, eta burubelarri sartuta ari da orain euskal pilotaren gaian. «Ezin dugu asko egin, baina mugitzen ari gara. Datu bezala esan, hemen go, Santa Rosako pilotariak eskutitz bat bidali diotela Argenti-

nako Federazioari gure eskariekin. Adierazpena banatzen dugunean ere bat egingo dute eta banatzen lagundu. Beste hainbat euskal etxek ere erantzun digute adierazpena banatuko dutela esanez», nabarmendu du.

Venezuelatik, Luis Alberto Trincado mintzo da. Caracasko euskal etxeko zuzendaritzako kide izandakoa eta Asociacion

PROPOSAMENA

Euskal pilotariak Venezuelarekin?

Hainbat proposamen landu dituzte Euskal Diaspora Elkartean gaiaren inguruan. Harremanak etengabeak dira Argentina, Uruguai, Txile, Brasil, Venezuela, Puerto Rico, Mexiko, AEB, Espainia, Ingalaterra, Finlandia eta Euskal Herriko internauten artean. Azken boladan, ordea, Txileko pilotazale ezagun batek eginiko proposamenak bereganatu du guztien arreta. Euskal pilotariak, Venezuelako selekzioarekin parte hartzea proposatu du hark, azken errekurtsu gisa. «Almeriako Munduko Kopa, ikurrin bakarra Venezuelako selekzioak zeraman. Gure gazteentzat ohorea zen hura eramatea, baina aldi berean tristura sortzen zuen. Hemen, pilotaren kontrola euskal etxeek izan dezaten zaindu da beti. Elementu abertzale indartsu bat dago», diote Venezuelatik.

Venezolana de Amigos de Euskal Herria-ko kidea da Trincado. «Hemen, euskal komunitate gisa, pilotari eta federatu mailan mugimendu handia dago, eta adostasun handia, nahiz eta batzuk EAJren aldekoago edo ezker abertzalearen aldekoago izan. Hemen ez dago egun Euskal Herrian dagoen zatiketa arazo hori», hausnartu du.

ADIERAZPENA

Ordezkaritza propioa eskatuz

Hau da euskal diasporako zenbait kidek gaur bertan Internet bidez mundu guztian zehar zabaldu asmo duten adierazpena. euskaldiaspora@euskalherria.org helbidera bidal daitezke atxikimenduak.

Abuztuan Iruñean jokatu den Munduko Txapelketan Euskal Herriari ordezkaritza propioa izatea debekatzeko Nazioarteko Pilota Federazioak hartu duen jarrera dela eta, federazio horri zuzentzen gatzazkio, euskal herritarroi parte hartzeko dugun eskubidea urratzen zaigulako protesta eginez.

Mundialeko Antolakuntza Batzordeak txapelketako hizkuntza ofizialak gaztelania eta frantsesa izatea erabaki izana, euskararen kontrako diskriminazio eta errespetu falta argiak izan dira. Era berean, kirolari berari *Euskal* hitza kendu izana euskal herritarren kontrako neurri baztertzaileren zerrenda luzean beste adibide bat da.

Euskal herritarrek euren kirolean izan dezaketen nazioarteko errekonozimendua estali nahi dute ekintza horiek, eta baita euskal gizartearen ordezkagarritasun propio eta lejitimoa izateko nahia ere, egun Euskadiko Federazioaren bi-

dez, hainbat klub, pilota eskola eta kirol elkarteren bidez agerian gelditzen ari den nahia, bai Euskal Autonomia Erkidegoan, bai Nafarroan eta bai Iparraldean. Horiek guztiak, egunero pilotaren alde lanean ari direnak.

Nazioarteko Pilota Federazioko presidenteak ez du bete Mexikon emandako hitza. Gutxirako balio du haren hitzak; izan ere, non gelditzen da gaur haren konpromisoa, Euskadiko Federazioko kideei 2002ko Mundialean parte hartu zezaketela esan zutenean? Euskal Herriak merezi du bere ordezkaritza edukitzea, bai historiaz, bai ibilbidez, bai kirol horren arima delako.

Diskriminazio horiek eta jasotako ezetzek agerian uzten dute azken erabakien jatorri politikoa eta Nazioarteko

Federazioak nola men egiten dien Espainiako eta Frantziako Gobernuen presioei, aurretik beste zenbait kirole-tan gertatu den bezala, surfean eta soka-tiran kasu.

Hala, Euskal Herriaren zati garenez hitzaren zentzurik zabalenean, Nazioarteko Federazioari exijitzen diogu berriro aztertze euskal herritarren parte-hartzeari buruz emandako ezezkoa eta zuzentzeko euskararekiko (munduko hizkuntza zaharrena) izan duen errespeturik gabeko jarrera, Mundialeko hizkuntza ofizial izendatuz.

Nazioarteko Federazio horri jakinarazten diogu protesta hau federazio guztietara helaraziko dugula, euskal elkarte eta komunikabide guztietara, mundu guztian zehar.